



"Galdeketan parte hartzeko deia egiten diegu durangarrei"

Laura Gomez eta Xabi Zabala Erabaki plataformako kideak dira. Hainbat ekimen antolatu dute martxoaren 14an Durangon lehenengoz egingo den herri kontsultan parte hartzea bultzatzeko. Domekan bizikleta martxa egingo dute. • 3



Mundu oso bat Zaldibartik

Zaldibarko Jendeak elkarteak 'Zaldibartik mundura' dokumentala landu du, egungo testuinguruan urteroko kulturarteko jaialdia antolatzeko duten zailtasunari erantzuteko. Otsailaren 27an estreinatu zuten dokumentala, liburutegi zaharreen, hiru emanaldi eskainita; zapatuan beste bi eskainiko dituzte. "Pozarren gaude izan duen harreragaz", azaldu dute elkartetik. • 10



DRTren zuzeneko emanaldietan esatari

Arripausuetako partiduak Youtubeko bere kanalean zuzenean emititzen hasi da DRT. Eneko Aretxaga eta Iñigo Beitia esatari aritu ziren estreinakoz. • 20

SCHMIDT
Home SCHMIDT Home

SUKALDEAK
ETA ETXEKO ALTZARIAK

ZORATZEKO MODUKO
ESKAINTZAK
**MARTXOAREN
1 ETIK 30 ERA**



Murueta Auzoa z/g - Eroski Merkatal Zentroa - 48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt

EAJ



"Entzute aktiboaren alde egin gura dugu, herritarrekin komunikatzeko bide berri bat sortuz"

EAJ-PNV Durangoren apustua da komunikazio-kanal bat ipintzea herritarren proposamenak entzuteko eta ETSren aurrean —lurren jabe den erakundea— eta inplikaturako erakundeen aurrean bereak balira lez defendatzeko.

Durangoko trenbide zaharraren lursaila oso gai eztabaidagarria izaten ari da azken asteetan. Gaur egun, espazio horren birpartzelazio-proiektua udalak geldiarazi du, eta, aldi berean, geldiarazteari buruzko herri kontsulta bat planteatu du.

Herritarren parte hartzeak funtsezko papera izan behar du proiektu honetan; baina uste dugu gobernu taldeak planteatutako PERI 1 Trenbidea kontsultak ez duela zentzurik orain, ez baita prozesu loteslea, proiektua geldituta dagoelako eta ETSgaz negoziatzeko beharrak eta EH Bilduk eta Podemosek zabalduen prozesu judizialek dena baldintzatzen dutelako.

"Uste dugu gobernu taldeak planteatutako kontsultak ez duela zentzurik orain"

Hala ere, alderdi jeltzaletik entzute aktiboaren alde egin gura dugu, herritarrekin komunikatzeko bide berri bat sortuz, haien nahiak eta proposamenak ezagutu ahal izateko. Bide zaharraren birpartzelazio proiektua orain hamarkada bat baino gehiago diseinatu zen eta ez die erantzuten durangarrek gaur egun dituzten beharrenei. Horregaitik, gure proiektua jendea-ri entzutean oinarrituko dugu eta, ondoren, inplikaturako erakundeen aurrean defendatuko dugu.

Elkarlanaren, elkarrekiko konfiantzaren eta elkar ulertzearen alde gaude, guztiok norabide berean arraun eginez, etorkizunean Durango hobe baterantz aurrera egin ahal izateko.

EH Bildu



"5 dorre eta 554 etxebizitza berri, hori da Durangok behar duena?"

Inork ere ez ditu gure herriaren beharrezkoak ezagutzen hemen bizi garenok baino hobeto. Norbaiten ustetan ideia ona izan zitekeen 18 solairuko luxuzko bost dorre eraikitzea, krisia baino lehenago agian. Garaiak aldatu egiten dira, baita pertsonen lehentasunak ere. Martxoaren 14ko herri galdeketa 3.000 durangarrek eskatu zuten eta udalean aho batez onartu zen. EAJk, PSEk eta ETSk egindako hobekuntzak txertatu dira prozesu osoan zehar. Gai honetan, borroka alderdi-koiek ez dute zentzurik.

Orain aukera paregabe baten aurrean gaude: orain 20 urte durangarrei kontsultatu barik erabaki zenagaz aurrera jarraitzea, ezezko botoa eman; ala prozesu parte hartzaile bat zabalduen Durangon ditugun premiez hausnartzeko, baiezko botoa eman.

"Lursail hauek aukera ezin hobea eskaintzen digute etorkizuneko Durango birpentsatzeko"

Guk baiezkoaren alde egingo dugu, arrazoi hauengaitik:

Lehenengo, trenaren lurperatzearen gainkostuak berreskuratzeko, ondare publikoa pribatizatu gura digutelako, eta lursailen 100 urteko okupazioaren ostean durangarrok ez ditugu gainkostu horiek gure gain zertan hartu. Are gutxiago jabetza publikoa izanda.

Bigarrenik, ordaindu ahal duenarentzat egindako luxuzko 5 dorreak Durangoren zatiketa betiketuko duten harresi fisiko eta sozial bat bihurtuko direlako.

Eta, azkenik, etxe berriek 1.500 biztanle berri ekarriko dituztelako, inguruetan auto, trafikoko eta kutsadura handituz eta herri osoko zerbitzuak saturatuz. Belaunaldi berrientzat hipoteka bat.

Lursail hauek aukera ezin hobea eskaintzen digute etorkizuneko Durango birpentsatzeko. 554 etxebizitza berri egitea: beharrezkoak dira ala premia larriagoak ditugu? Martxoaren 14an erabakiko da, ez hutsik egin!

Herriaren Eskubidea · Podemos Ahal dugu



"Martxoaren 14koa etorriko diren galdeketa lehenengoa izatea da gure helburua"

Hemen da Martxoak 14. Badator egun handia, historikoa. Astebete barru, lehenengoz, durangarrok herri galdeketa egingo dugu. Horregaitik da hain garrantzitsua Landako Gunera joatea galdeketa parte hartzeri. Zenbat eta durangar gehiago bertaratu, orduan eta argiago utziko baitugu gure ahotsa entzutea gura dugula.

Herriaren Eskubideak botoa ematera gonbidatzen eta animatzen zaituztegu durangar guztiok. Gure herriaren etorkizuna guztiz baldintzatuko duen proiektuaren inguruan duzun iritzia jakitea ezinbestekoa iruditzen zaigulako. Zuen interesen alde lan egiteko gaudelako hemen.

"Herriaren Eskubideak parte-hartze altua espero eta nahi du. Horretarako egin genuen udalera jauzia"

Martxoaren 14koa etorriko diren galdeketa lehenengoa izatea da gure helburua. Erabaki funtsezkoak guztion artean adostea ez lukeelako salbuespena izan behar, ohikoa baino. Ez liratekeelako erabakiok soilik bulegoetan hartu beharko eta gehiagotan izan beharko genukeelako herritarrok proiektu estrategikoen gainean erabakitzeko aukera. Gobernantza mota askoz bidezkoagoa delako. Eman dezagun, beraz, bide berri honetako lehenengo urratsa.

Honegaitik guztiagaitik, Herriaren Eskubideak parte hartze handia espero eta gura du. Izan ere, horretarako egin genuen udalera jauzia: erakundeak herritarren mesedetara ipintzeko. Eta logika horren barruan, proiektua gelditzeko, BAI bozkatuko duguk.

PSE-EE Durango



"Momentu honetan, kontsulta popularra dirua eta denbora galtzea da PSE-EEren ustez"

Datorren martxoaren 14an, PERI-1 Trenbideari buruzko herri galdeketa egingo da Durangon. Udal politiketan garrantzi handikoa da herritarren iritzia entzutea eta kontuan izatea, baina herritarrek aukera biren artean hautatu behar dutenean (kasu honetan, BAI ala EZ) oso argi eduki behar dute zer ondorio dakartzan bakoitzak, eta hori gaur egun ez dago batere argi.

Gure ustez, gauzak alderantziz egin dira. Lehenengo, instituzio publiko bien (Eusko Jaurlaritzak eta Udala) arteko negoziazioa egon beharko litzateke, batez ere denok jakiteko zeri buruz gabiltzan berba egiten proiektuaren bidergarritasun teknikoari, ekonomikoari, ingurumen arlokoari edo soziokulturalari buruz berba egiten dugunean.

"Ziur dakiguna hau da: galdeketa ez-loteslea dela, dena negoziazio batetik pasatu behar dela"

Ziur dakiguna hau da: galdeketa ez-loteslea dela, dena negoziazio batetik pasatu behar dela, prozesua judizializatuta dagoela epai irmorik barik, eta badakigu, azken erabakia edozein dela ere, etxeak eraikiko direla bertan.

Bestalde, hainbat kontuk ziurgabetasuna eragiten digute: zer negoziazio gaitasun duen udalak, zer suposatzen duen 'bideragarritasuna' berbak, zenbat luzatu ahal den prozesu hau, zer ondorio ekonomiko izan ditzakeen udalarentzat...

Momentu honetan, Alderdi Sozialistaren ustez, kontsulta popularra dirua eta denbora galtzea baino ez da. Gainera, ez dugu ahaztu behar pandemia batean gaudela, eta botoa emateko txartelak egun horretan eta Landako Gunean bakarrik hartu ahal direla. Gauzak ondo egin behar dira, bai formetan bai funtsean.

“Lehentasun bat da Durangoren erdigunean dugun espazio handi hori herritarrek aprobetxatzea”

Martxoaren 14an PERI1 Trenbidea proiektuaren inguruko galdeketa egingo dute Durangoko Landako Gunean

DURANGO • JONE GUENETXEA

Astebete geratzen da PERI1 Trenbidea proiektuaren inguruko galdeketa egiteko Durangon. Erabaki plataforma parte hartzea bultzatzeko kanpaina egiten dabil. Laura Gomez Villanueva (Durango, 1973) eta Xabier Zabala Agirrezabal (Durango, 1982) talde horretako kideak dira.

Zelan planteatu duzue kanpaina?

Laura Gomez: Hainbat ekintza egingo dugu. Batez ere, informazioa zabaltu gura dugu, parte hartzea bultzatzeko. Gure helburua prozesu hau gauzatzeko da.

Xabier Zabala: Kartelak ipini ditugu galdeketa inguruko giroa sortzeko. Eskuorriak ere banatu ditugu, eta megafonia ere ipiniko dugu. Ekitaldi bat antolatzeko asmoa ere badugu. Domekarako bizikleta martxa bat antolatu dugu.

Zein garrantzia du parte hartzeak prozesu honetan?

X.Z.: Durangon galdeketa bat egiten den lehenengo aldia da. Horixe eskatu genion udalari sinadura bilketa baten bitartez. Uste dugu horrelako gai estrategikoetan oso garrantzitsua dela herritarren iritzia kontuan izatea. Datozen urteetarako ideia interesgarria da. Politika zaharrera ohituta gaude, goitik behera datorren horretara. Sasoia da parte hartzea sustatzeko eta erabakiak horizontalagoak izateko.

L.G.: Udalak atek zabaltzea gura dugu. Orain arte, herritarrok alde batetik joan gara, eta erakundeak beste batetik. Uste dugu informazio bide horiek zabaltu egin behar direla, eta, horretarako, prozesu parte hartzaile bat egitea oso bide ona dela, denon iritzia kontuan hartuta.

X.Z. Instituzioek termometroa ipini beharko dute herritarrek zer pentsatzen duten jakiteko. Porlanez betetako eredu bat gura dugu, ala beste zoezer?

Bizi dugun sasoiari, parte hartzeak arduratzen zaituzte?

X.Z.: Sasoi gaxa bizitzen gabiltza, eta logikoa da jendea beldurtuta egotea. Baina, lanera goaz egunero, erosketak egiten ditugu...

L.G.: Bizitzak aurrera jarraitzen du eta horrelako ekimenak ere egin behar ditugu. Gainera, segurtasun neurri guztiak martxan egongo dira. Landako

Gunea oso leku aproposa da horretarako.

X.Z.: Ia hiru urte daramatzagu galdeketa gaiagaz. Guretzat lehentasun bat da, Durangoren erdigunean dugun espazio handi hori herritarrek aprobetxatu beharko luketelako. Horregaitik, parte hartzera dei egingo nieke herritarrei, aukera hau aprobetxatzeko.

Galdeketa hau inflexio puntu bat izan daiteke politikagintza beste modu batera egiteko?

X.Z.: Gai honetan zein beste askotan, ondo legoke herritarren iritzia aintzat hartzea, minimo moduan.

L.G.: Udalaren helburua herritarrei babesa ematea da. Herritarrik barik ez dago udalik. Udala herritarrei zerbitzu bat eskaintzeko dago.

“

Horrelako gai estrategikoetan, uste dugu oso garrantzitsua dela herritarren iritzia kontuan izatea

XABIER ZABALA

PSE-EEK oharra kaleratu du galdeketa "fartsa" bat dela esanez. Zelan hartu dituzue adierazpen horiek?

Xabi Zabala: Erabaki Plataformako kideok PSE-EEgaz batu izan garenean eta galdeketa oinarriak eta baldintzak aurkeztu zirenean, aldeko jarrera erakutsi zuten publikoki. Orduetik hona ez dira baldintzak aldatu, eta, beraz, ez dugu ondo ulertzen azken orduko iritzi aldaketa hau.

Galdeketa ez da loteslea legalki, baina udaleko alderdiek, PSE-EE kenduta, bat egingo dutela diote. ETSk ere errespetatuko duela dio.

X.Z.: Hipotesi bat ipiniko dut. Baiezkoak irteten badu, esan gura du iritzi horrek indarra duela herrian. Udaleko ordezkaria bazara, horrek gogoetarako aukera eman beharko luke. Legalki ez da loteslea izango, baina etikoki bai. Eta, kontrara, jendeak ezezkoa ematen badu, eta orain arteko proiektuaren alde egiten badu, hori ere errespetatu beharko da.



Laura Gomez eta Xabier Zabala Erabaki plataformako kideak.

Mondragon Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan

He er er arnitu que mas te interese mas...

Diseno y fabricacion de dispositivos | Analisis de datos y Machine Learning | Procesamiento de senales e imagenes biomedicas

Definitu apur bat zeure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?
Ikasketak Kurutzian eta Ibaizabalen egin ditut eta nire zaletasunak saskibaloia, arrantza eta mendira perretxiko bila joatea dira.

Zergatik aukeratu zenuen Ingeniaritza Biomedikoa gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?
Ibaizabalerara pasatzerakoan, neure burua arlo teknologikoan ikusten nuen. Ingeniaritza Mekanikoa egitea nuen helburu, baina gurasoekin egindako bidaia batek pentsaera aldatu zidan. Kanbodiara joan ginen, oporretan, eta han GKE bat bisitatu genuen. Hainbat urte zein heldu zeuden eskuak eta hankak gerran galdu zituztenak, mendietan utzitako hainbat minen ondorioz. Euren istorioek egiten nabilen gradua aukeratzeko bultzatu ninduten.

Zelan baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?
Momentu onak zein txarrak egon dira, baina, orokorrean, pozik nago. Lehenengo urtea nahiko errez pasatu nuen, baina bigarren urtean, txarto antolatu nintzen, errepikatu behar izan nuen. Urte hauetan, argi geratu zait ikasteko denbora edukita eta eguneroko lanarekin, ez litzatekeela arazorik egon beharko gradua aurrera ateratzeko.

Zelan definituko zenuke Goi Eskola Politeknikoan jasotzen duzun ikasteko metodologia?
Alde onak zein txarrak ditu. Asko gustatzen zait eduki teorikoak proiektuen bitartez praktikan ipintzen direla eta, horretaz gainera, kontrol puntu ugari edukitzeak edukiak hobeto menperatzea eta ikasgaia errazago aprobatazea ahalbidetzen duelako.

Zer da unibertsitatetik gehien gustatzen zaizuna? Badago ezer hobetzeko?
Eduki teorikoak proiektuen bitartez praktikan jartzen direla da gehien gustatzen zaidana. Oso garrantzitsua da metodologia hau edukitzea, kontzeptuak barnertzea askoz ere errazagoa egiten baita. Gainera, gradua amaitzean, mundurako sarrera errazagoa egiten da. Hobetzeko zerbait aipatzekotan, kontrol puntuen eta lanak entregatzeko epeen antolaketa hobetu daitekeela uste dut, batzuetan lan zein azterketa pilaketa handiak egoten baitira.

Zeintzuk dira zure asmoak etorkizunari buruz?
Nire etorkizuna protesiaren erlazionatua egotea espero dut, eta gaixoekin erlazio zuzena edukitzea. Hori posible ez balitz, ospitale batean lan egitea gustatuko litzaidake.

“Kanbodiara egindako bidaia baten ondoren erabaki nuen Ingeniaritza Biomedikoa ikastea”

AITZOL SOLOETA ZUBILLA (Durango, 21 urte)
Ingeniaritza Biomedikoko graduaren hirugarren maila ikasten dabil Mondragon Goi Eskola Politeknikoan.

Río de Oro elkartearen Karabana Solidarioak aurreikusitako helburu guztiak gainditu ditu

39.713 euro batuta, Durangaldeko elkarteak ia 25.000 kilo elikagai eta higiene produktu bidali ditu Saharako errefuxiatuak hartzen dituen Tindufeko kanpalekura



Bilboko portutik irten eta gero, Tindufera bidean da Karabana Solidarioa.

Herriak Saharako herriaren alde duen elkartasuna", adierazi du elkarteak.

39.713 euro

Aurtengoa kanpaina berezia izan da, ohiko janari bilketa barik, diru bilketa bultzatu duelako elkarteak. Herriarren ekarpen ekonomikoa-gaz, 11.933 euro batu dituzte. Durangaldeko udalei, ikastetxeei eta instituzioei eskerrak beste 26.279 euro eskuratu dituzte, eta egon da 1.500 euroko dohaintza pribatua egin duenik ere. Batutako 39.713 euro horiekin finantzatu dituzte elikagaiak eta higiene produktuak. Bestalde, elkarteak jakinarazi du Durangaldeko karabanagaz batera

Río de Oro: "Berriro ere frogatuta geratu da Euskal Herriak Sahararen alde duen elkartasuna"

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Bilboko portutik Alacantara (Herrialde Katalanak), handik Aljeriako Oran hirira, eta, azkenik, Tindufeko kanpalekura. 24.934 kilo elikagai eta higiene produktu batuta, martxan da aurtengo Karabana Solidarioa. Río de Oro elkarteak jakinarazi duenez, honako laguntza hau ipiniko dute sahararren eskuetan: arroza (5.867 kilo), pasta (11.764), leka-leak (3.703) atuna eta olioia (450), azukrea (1.500), konpresak (450), pixoihalak (700) eta arropa (500). Karabana Solidarioa Tindufera ailegatu barik zegoen edizio hau ixterako. Trailerrak Alacanten zeuden Oranerako bidea noiz hartuko zain.

Aurreikuspenak gaindituta

Río de Oro elkarteak kideak "oso pozik" daude Karabana Solidarioak izandako erantzunagaz. "Aurreikusitako helburu guztiak gainditu dira eta lortutako emaitzak uste baino hobek izan dira. Bilketa kanpaina oso arrakastatsua izan da eta beste behin ere frogatuta geratu da Euskal

beste trailer bi ere bidali dituztela Tinduf aldera. Eta ez hori bakarrik. 4x4 ibilgailu bat ere eraman dute, hango umeei eskoletako joan-etorrietan laguntzeko. Aurrera begira, orain arteko moduan sahararren kausaren alde jarraitzeko eskatu die Río de Oro Durangaldeko herritarrei. Marokoren eta Fronte Polisarioaren artean gerra berpiztu zen duela gutxi.

15 arropa dendak eta 3 saltoki gastronomikok osatuko dute asteburu honetako Aukera Azoka

Gaurtik domekara arte ohi baino prezio merkeagoan eskuratu ahalko da arropa, Durangoko Landako Gunean. Dendak Baik Aukera Azokaren 16. edizioa antolatu du

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Asteburu honetan, Dendak Bai elkarteak Aukera Azokaren 16. aldian antolatuko du Eusko Jaurlaritzaren eta Durangoko Udalaren babesagaz. Aurten, Durangoko 18 saltoki batuko dira Landako Gunean. Denboraldi honetan edo beste batzuetan saldu barik geratu diren produktuak prezio merkeagoan eskuratu ahalko dira bertan.

Mota guztietako saltokiak egongo dira: ume zein nagusientzako arropa, kirol arlokoa, oinetakoak...

Produktu horiek guztiak 15 saltokitan banatuko dituzte. Beste hiru-rak, oster, saltoki gastronomikoak izango dira. Sarrera doakoa izango da, eta erosketaren bat egiten duenak dohainik izango du Landako Gunearen azpiko aparkalekua, ordu biko iraupenagaz.

"Ez da urte erraza izaten ari ehungintzaren sektorean", adierazi du Dendak Bai elkarteak Alex Palacios. Horregaitik, herritarrek azokan "parte hartzera" eta komertzio horiei "laguntzera" animatu ditu.

Hainbat neurri hartu dute segurtasuna bermatzeko. Esaterako, edukiera mugatuta egongo da, bai azokan bertan, bai postu bakoitzean. Makina bat arduratuko da horretaz. Gainerakoan, informazioa bozgorailuetatik helaraziko dute. Aukera Azokak ordutegi hau izango du: barikuan eta zapatuan 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara egongo da zabalik. Domekan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.



Dendak Bai elkarteak kideak Aukera Azokaren aurkezpenean.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko martxoaren 5a
19. urtea - 841. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durangoko 100 ikaslek 50 arbola landatu dituzte Zuhatzola parkean

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko ikastetxe bakoitzeko 20 ikaslek zuhaitzak landatu dituzte udal agintariekin batera. Haritzak, lizarrak, astigarrak eta hurritzak sartu dituzte Zuhatzola parkearen inguruetan. Bertako espezieak denak. Joan zen domekan sartutako 50 aleak orain hilabete landatutako beste 71 aleei batzen zaizkie. Horrenbestez, 121 arbola berri daude Durangon. Egitasmo hau 2020ko aurrekontu parte hartzaileetatik eratorritako ideiarik bozkatuenerarikoa izan zen, 859 botogaz. Egitasmoagaz "Durango berdeago bat" sortzen jarraitzeko asmoa dutela esan dute Mariam Bilbatua eta Mikel Uriguena zinegotziek.

Garai garagardo ekoizleek zerbeza beltz berri bat merkaturatu dute

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garai Brewing Company garagardo etxeak zerbeza berri bat saltzeari ekin dio asteon. "Porter estiloko zerbeza beltza da. Sua-bea. Bost gradu ditu eta nahikoa erraza da edateko. Ez du ohiko garagardo beltzek duten erre zapore hori. Kafetik baino gehiago du txokolatetik", azaldu du enpresako kide Ibon Berrizabalgoitiak. Garagardo ekoizpen berria "gutxi karbonatutakoa" dela eta bere ekoizpenerako "olo dezente" baliatu dutela gaineratu du Berrizabalgoitiak.

Oraingoz, 400 litroko ekoizpena egin dute zerbeza beltz berriagaz, baina gehiago ere ekoiztuko dute eskariak aurrera egin ahala. Laster, zerbeza zapore berriak ekoiztuko dituztela aurreratuko dute zerbezagileek.

Zornotzako Berdintasun Plan berriak leiho bat zabalduko du balio feministen aniztasuna lantzeko

Zornotzako udalbatzak Berdintasun Plan berria onartu du, aho batez. Udalerrian egiten den hirugarren Berdintasun Plana da. Ohiko balio feministak islatzeaz gainera, testu berriak azalaren koloreagaitiko, jatorriagaitiko, diru-sarrerengaitiko edo orientazio sexualagaitiko diskriminaziorik egon ez dadin lan egingo du. Liburuxka bat helaraziko dute etxeetara

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Berdintasun Planak koska bat egin du gora. "Aniztasuna" islatzen duen Berdintasun Plan berria onartu dute zinegotziek, eta testu berriagaz feminismoaren esku-hartze anitzak islatu dituzte. "Azalaren koloreagaitiko, jatorriagaitiko, diru-sarrerengaitiko edo orientazio sexualagaitiko" diskriminaziorik egon ez dadin lan egingo dute, Ainhoa Salterain Berdintasun zinegotziaren esanetan. Udalbatzak III. Berdintasun Plana onartu zuen joan zen astean, aho batez. Testu berriak 2023ra arteko iraupena izango du, baina zeozer egonkorra barik, plan "bizia" izango dela aurreratuko dute udal agintariekin.

Ardatz nagusiak

Berdintasun Plan berriak 10 programa, 23 helburu eta 76 neurri betetzea aurreikusten du. Horiexek dira zenbakiak. Edukiari dagokionez, honako hauek dira ardatz nagusiak: batetik, ikastetxeetan lan egin-

go dutela adierazi du Salterainek. "Bertara eramango dugu trebakuntza plana. Astiro-astiro, planaren edukiak ikasketa maila guztietara zabaltzea gura dugu", esan du. "Bestetik, berdintasunaren ikuspegia

udal langileen eta udalak kontratatutako langileen artean txertatu dugu. Gaiaz sentsibilizatu eta trebatu gura ditugu langileak", azaldu du. Azkenik, parte hartzea handitzeari begirako asmoa dago.

"Herriko eragileen parte hartzeagaz Berdintasun kontseilua biziarazi" gura dutela esan du Berdintasun zinegotziak. Zornotzako elkarte eta eragile ugari parte hartu dute Berdintasun Plan berrian. 30 batek.



Ainhoa Salterain Berdintasun zinegotzia eta Andoni Agirrebeitia alkatea.

680.000 euroko diru poltsa Zornotzako aurrekontu parte hartzaileetan

Zornotzarrek zabalik dute 2022ko aurrekontu parte hartzaileetarako proposamenak aurkezteko epea

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzarrek zabalik dute aurrekontu parte hartzaileetan proposamenak egiteko epea. 2022ko udal aurrekontuen zati bat zertarako erabiliko den erabakiko dute herritarrek. 680.000 euro hain zuzen ere. Udalak adierazi duenez, herritarren proposamenak ikuspuntu tekniko, juridiko eta ekonomikotik aztertuko dituzte.

Ideiek ez badituzte hiru baldintza horiek betetzen, ez dute hurrengo fasera pasatzerik izango. Aipirilaren 30era arteko epea dago proposamenak egiteko.

Iazko proposamenetarikoa bat, adibidez, Kaitanan igogailu bat ipintzea izan zen. Ideia hura bere egin zuen udalak eta horrek isla izan du aurtengo aurrekontuetan.



Besteak beste, Kaitana plazan igogailua ipintzea proposatu zuten iaz.



Seguros Bilbao

**RUEDA BILBAO
ASEGURUAK
Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO

ORDUTEGI BERRIA: Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 15:30era

Zenbaki hauekin emango diogu lehentasuna bezeroari:
946 20 27 10 / 688 86 11 37

Egunero eskainiko dizugu gure arreta ondorengo helbidean:
jrueda@segurosbilbao.com

DIBA
K O O P E R A T I B A

**Durungaldeko
Baserritarren
Elkartea**

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Mallabian telekomunikazio-sareari lotutako antena bat ipini gura duen enpresak arlo horretako ordenantza berri bati jarraitu beharko dio aurrerantzean. Udalbatzarra osatzen duten EAJk eta EH Bilduk aho batez onartu dute ordenantza berria. Alegazioek prozesua atzeratzen ez badute, martxoaren amaieran sartuko da indarrean.

Helburua ez da telekomunikazio azpiegitura berriei atea ixtea, garapen horren eta herritarren segurtasunaren arteko oreka bilatzea baino. "Funtsean, helburua da, udal-erkumenean esparruan, ahalik eta gehien babestea osasuna, ingurumena eta hirigintza-interesak, arrazoizko neurriak aplikatuz eta telekomunikazioaren garapenari eta zerbitzuari inolako oztoporik ipini barik", jasotzen du 33 orri dituen dokumentuak.

Helburu horregaz, Mallabian antena bat ipintzeko bete behar diren baldintzak jasotzen ditu ordenantzak. Hain zuten ere, Otik 300 gigahertzera arteko maiztasun-tartea darabilten telefonia mugikorreko antenei eragiten die; baita emisiorako, irrati-difusiorako eta telebistakoei, eta irratazaleen antena katalogatuei ere, besteak beste.

Ordenantzari jarraituz, ezarpen plan bat landuko dute. Plan horren helburua da "paisaiari eta ingu-

Antenak zein baldintzan eta non ipini zehazten duen ordenantza onartu du Mallabiko Udalak

Udalbatzarreko alderdi biek (EAJ eta EH Bildu) aho batez onartu dute. Osasuna eta ingurumena "ahalik eta gehien" babestea da xedea, garapenari "inolako oztoporik" ipini barik



Mallabiko Bitoita auzoko azpiegiturak telefono mugikorreko eta telebistako antenak bateratzen ditu.

rumenari egindako inpaktua eta lurraldeko estaldurarik egokiena bateratzea, sarearen antolaketa geografikoa zehaztuz, antenak modu egokian kokatuz eta katalogatutako eraikin multzoak, bide publikoa eta hiri-paisaia babestuz", dokumentuak jasotzen duenez. Plan horretan, une honetan dauden instalazioak zein operadoreek etorkizunean ezartzeko asmoa dutenak jasoko dira. Azken horien kasuan, operadoreek memoria bat, gutxi gorabeherako egutegi bat eta planoak aurkeztu beharko dituzte.

Otik 300 gigahertzera arteko maiztasun-tartea darabilten hainbat antena motari eragiten die

Sorburua herri ekimenean

Orain guztiz gorpuztu den ordenantza honen hazia herri mugimenduan dago. 2019an, Orange konpainiak San Pedro ermitaren inguruan telefonia antena bat ipintzeko asmoa zuela jakitean, hainbat herritar, kezkatuta, mugitzen hasi zen. Orduan, besteak beste, arlo horretako marko arautu baten premia azpimarratu zuten.

Igor Aguirre alkatearen esanetan, "herriak horrelako ordenan-

tza bat eskatu zuten eta guk bidea eman diogu horri". EH Bilduko Aitor Loiolaren ustez, ordenantza "oso positiboa da eta, gainera, behar zen zerbait da". Hasieratik, San Pedron antena ipiniko zela jakin zutenetik, gai honen inguruan beharrenean aritu direla azaldu du. Ordenantza herritarrei azaltzeko, herri batzar batera deitzeko asmoa dute Aguirre-aren esanetan.

Ordenantza onartu arteko prozesua honako hau izan da: lehenengo, Europako Batasunean onartutako ebazpen bat bere egin zuten udalbatzarrek. Ebazpen horrek jasotzen duenez, oso maiztasun baxuko uhin

2019an, herritar batzuk mugitzen hasi ziren, San Pedro ermitan antena bat ipintzeko asmoa zegoelako

elektromagnetiko jakin batzuk "kaltegarriak" izan daitezke, bai animalientzat bai giza gorputzerako, eta eremu elektromagnetikoak murrizteko "arrazoizko neurri guztiak" hartzea gomendatzen du. Behin postura hori hartuta, iazko uztailean Mallabiko uhinak neurtu zituzten eta, gero, neurketa horiek kontuan hartuta, aditu batek gomendio batzuk eman zituen. Oinarri horien gainean eraiki dute ordenantza.

Otxandioko 11Lore elkarteak ortu bat kudeatuko du beharrezana duten familiekin elkarlanean

Udalak utzitako lurzati batean askotariko barazkiak haziko dituzte modu kolaboratiboan; horrez gainera, integrazioarako erreminta lez erabili gura dute espazio berri hori, kultura desberdinetako jendea hartu-emanetan egongo delako

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Azken udalbatzarrean aho batez onartu zenari jarraituta, Otxandioko Udalak eta 11Lore elkarteak hitzarmen bat sinatuko dute. Beharrezan dituzten herritarrei laguntzeko pauso berriak ematea da helburua.

Udalak bere ondasun bi utziko dizkio elkarteari: lurzati bat, ortu bat garatu dezaten, eta etxebizitza bat, biltegi zein harrera-gune funtzioak beteko dituen.

Ortu modura erabiliko den lurzati Errekatxiki inguruan dago, beste ortu publiko batzuen ondoan. Datozen asteetan, gune hori garbitu eta atonduko dute proiektuari ekin ahal izateko. 11Lorek eta herriko 12 bat familiak askotariko ortuak haziko dituzte bertan, modu kolaboratiboan. Elikagai horiek familia horientzat eta beharrezan duten gainerakoentzat izango dira. Modu horretara, parte hartze zuzena izango dute euren elikadura premiak asetzeko, eta, gainera, elikadura osasuntsua bermatuko dute

hazitako produktuekin. Beste helburu bat elkarrezagutza sustatzea da. "Integrazioarako bide bat izatea gura dugu. Parte hartuko duten familiarik gehienak etorkinak dira eta ortuaren bitartez hartu-ema-

netan ipiniko ditugu euren artean zein hemengo jendeagaz", adierazi du Onintze Lopez de Letona udaleko zinegotziak. Etorkizunean emakumeek paper protagonista bat izatea ere bilatuko dute.

Etxebizitza

Udalaren jabetzakoa den etxebizitza bat 11Loreri uztea izango da hitzarmeneko beste puntu bat. Hutsik eta 'jantzi' barik dagoen pisu hori Mediku kalean dago. Orain



Errekatxiki inguruan sortuko dute ortu berria, beste ortu publiko batzuk dauden orube inguruan.

arte biltegi lez erabiltzen zen loka-lagaz alderatuta abantaila nagusi bi ditu: leku gehiago du produktuak gordetzeko, eta familiak atenditzeko harrera-gune bat izango du.

Urte askoan lanean

Herritar talde batek urteak daramatza premia dutenei laguntzeko lanean. Etorkin etorriberriei laguntzeko harrera talde moduan hasi ziren. Ondoren, beste pauso bat eman eta elikagaien bankua sortu zuten. Puntu horretan zeudela, gauza bigaz konturatu ziren: elikagaien premia zegoela —ortu berriak behar horretatik sortu dira—, baina baita ere beharrezan ez zirela elikagaietara bakarrik mugatzen. Etxetresnak, arropak... Familiek beste gauza batzuk ere behar zituzten. Horrela, apurka-apurka, kate solidario bat sortu zuten herritar askoren laguntzagaz. Beharrezan identifikatu, zerrenda whatsapp taldean zabaldu eta herritarrengandik jasotakoak biltegian gordetzen zituzten familien artean banatu aurretik. Orain, funtzio hori egokiago bete ahaliko dute udalak utzitako etxebizitzagaz.

Hasieran mugimendu bat zena elkarte bihurtzea erabaki zuten, eta hortik sortu zen orain hile batzuk 11Lore elkarte.

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

anboto



Iñaki Narbaiza asiar liztorra amaitzeko edabeagaz.

Garagardo beltza, ahabi siropea eta ardo zuria, asiar liztorra amaitzeko edabea

Zalantzak dituzten herritarrek erleteeziola@gmail.com helbidera idatzi dezakete

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Neguan hibernazioan egon eta gero, asiar liztorraren (*Vespa velutina*) erreginak habia txikiak egiten hasten dira martxo inguruan, eta erlezaintzat sasoi gogorra bihurtzen da. "Erlezainok uztailetik aurrera bizi dugun egoera nahikoa larria da. Ikusten duzunean ehunka liztorrek milaka erle jaten dituztela egunero, horrek barrua mugitzen dizu", aitortu du Iñaki Narbaiza Erlete elkarteko kide berrizarrak.

Espezie inbaditzaile horren populazioa kontrolatu, erreginak hil eta ugalketa katea mozteko, udaberria sasoi ona izaten da, eta Narbaizak ekimen bat martxan ipini zuen iaz horretarako. Erlete

elkarteko kidearen helburu nagusia espezie inbaditzaile hori akabatzea da, eta tranpak ipintzen ditu erreginak harrapatzeko. "Erraza da tranpak egitea", esan du Narbaizak. Tranpa hauek ipintzera animatu ditu eskualdeko baserritar, herritar eta ikastetxeak, besteak beste.

Tranpa prestatzeko, plastikozko hiru botila behar dira. Horietariko batean, garagardo beltza (lata bat), koilarakada bat ahabi sirope eta txikito bat ardo zuri bota behar dira. Botila zarratu, eta, erdi inguruan, likidoa baino gorago, zulo bi egin behar dira, parez pare. Zuloetan, beste botila bietako ahoa sartu behar da, tapoi eta guzti (Botilak

moztu egin behar dira ahotik hamar bat zentimetrora, inbutu itxura emateko). Tapoietan bederatzi milimetroko zuloak egingo ditugu, tximeletak eta beste zomorro handiago batzuk ez sartzeko. Hortik sartuko da liztorra, likidoak erakarrita. Botila bien ahoen eta likidoaren artean beste zulo txiki bat egin behar dira botilan, eta horietan brida bana sartu, intsektu txikiagoren bat goitik sartuz gero, bridan pausatuta eta haren zulo txotik irten ahal izateko.

Narbaizak dioenez, likidoa loredun zuhaitz edo zuhaixketan ipini behar da, eta bi-hiru asterik behin aldatu.

Elorrion hainbat pasabidetako argiztapena hobetzen dabilta

Nizeto Urkizu, Julian Ariño, Betsaide, Goieta eta San Juan kaleetan hobetuko dute argiztapena, oinezkoen pasabideetan

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Otsailaren 26an, Elorriko Udalak herriko hainbat kaletako argiztapena hobetzen hasi zen. Udaletik azaldu dutenez, bizi-lagunen segurtasuna hobetzea da lan hauen helburua, izan ere oinezkoentzako pasabideak argiekin hornituko dituzte, ibilgailuek eta oinezkoek gehiago eta hobeto ikusi dezaten.

Lanak hasita daude dagoeneko, eta datozen asteetan amaitzea aurreikusten du udalak.

Lanak dagoeneko hasita daude dagoeneko, eta udalak datozen asteetan amaitzea aurreikusten du

Kale hauetan lanak

Elorriko Udaletik azaldu dutenez, honako kale hauetan hobetuko dute argiztapena oinezkoen pasabideetan: Nizeto Urkizu, Julian Ariño, Betsaide, Goieta eta San Juan kaleetan.



Nizeto Urkizu kalea.

'Maisu-maistren plaza' sortu dute Apatamonasterion, AHTaren kontrako ekimen sinboliko batean

"Herriarenak diren plazak herriarentzat" gura dituztela aldarrikatu dute Atxondoko AHTrik Ez mugimenduko kideek

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Laster urtebete beteko da maisu-maistren etxea lez ezagutzen zen eraikina bota zutenetik AHTa egiteko. Zapatuan, herritar talde bat bertara joan zen eta eraikina zegoen tokia 'Maisu-maistren plaza' bihurtu zuen, "herriarenak diren plazak herriarentzat" gura dituztela aldarrikatzeko. Ekimeneko sustatzaileek azaldu zuten ertzainak bertaratu zirela eta "bertan zeuden hainbat lagun identifikatu" zutela eta giroa "erabat zapuztu" zutela.

Zapatuan, Apatamonasterioko plazan 'Nundik nora' izeneko dinamika gauzatuz hasi zuten eguna. Ondoren, "adin guztietako herritarrek", maisu-maistren eraikina zegoen tokira joan ziren, auzolanean plaza berria sortzera, AHTaren kontrako ekimen sinboliko batean.



Ertzaintza plataformako kideek sortutako 'mais-maistren plaza'-ra bertaratu zen.

Izan ere, iazko maiatzean bota egin zuten eraikina AHTa egiteko.

"Atxondar guztiok elkar ezagutzeko eta bertan bizi izan dugun parte txiki bat izan zen Maisu-

maistren etxea, herria eraikitzen zuen etxea. Asmo berberagaz, herria eraikitzeko asmoagaz eta ilusioz, espazioa berreskuratu dugu, bertan 'Maisu-maistren

plaza' eraikiz, harresiak kendu eta gurea dena geure egin dugu", adierazi zuten Atxondoko AHTari Ez mugimenduko kideek prentsa ohar batean. "Herriarena dena

herriarentzat berreskuratzea" izan da helburua.

"Harresiak kendu eta gurea dena geure egin dugu", adierazi zuten plataformako kideek


"Munstroa gelditu dezakegu"

Atxondoko AHTari Ez mugimenduko kideek uste dute AHTko lanak geratu egin daitezkeela, eta ez dutela etsiko adierazi dute. "Munstroa gelditu dezakegu: proiektu honen adarrik konplexuenak eta garestienak egin barik daude oraindino: Atxondo erdibituko duten biaduktu erraldoiak, hiriburuetarako sarrera eta geralekuak, hiru adarren lotuneak, obraren gainegitura guztia eta abar. Ez dugu abiadura inora joan gura, lasai eta osasuntsu bizi gura dugu. Eta eredu honen aurrean borrokan jarraituko dugu", amaitu dute AHTrik Ez plataformako kideek.



merkataritza gida sarean

anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida BERRIA
euskaraz eta sarean!***

Merkatari gida parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)

'Zaldibartik mundura' dokumentalaren bigarren emanaldia eskainiko dute zapatuan

Emanaldi bi eskainiko dituzte liburutegi zaharrea

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Ohiko kulturarteko jaialdiaren alternatiba lez, eta zaldibartarren artean ere arrazismo kasuak gertatzen direla salatuz, Zaldibarko Jendeak elkartek ikus-entzunezko lana aurkeztu du. Dominikar Errepublikatik, Kolonbiatik, Errumaniatik, Sahararik eta Senegaldik ailegatutako zaldibartarrek euren lekukotza eskaini dute *Zaldibartik mundura* dokumentalean. 35 minutuan zehar, sufrituriko zailtasunak eta desberdintasun egoerak aletzen dituzte protagonistek. "Bizitza ez da erraza kontraturik barik lan egin behar duzunean, ezarritakoa

baino ordu gehiagoz, prekari-tatean, lanpostu bi aldi berean betetz, eta langileen eskubideak kontuan hartzen ez direnean. Gogorra da, tratua ez delako berdina guganako, eta askok besterik ez dutelako eusten diote egoerari. Egonkortasuna lortuta ere, eta integratu arren, aurreiritzi razialek hor jarraitzen dute", azaldu du Solange Rebeca S.B Diattak. Zaldi-

'Zaldibartik mundura'-ko protagonistak Senegaleetik, Kolonbiatik, Errumaniatik eta Sahararik heldutakoak dira

barko Jendeak elkarteko kiderik gazteena da bera, eta dokumentaleko protagonistetariko bat. "Badago maitasunagaitik datorrenik, baina asko etorkizun hobe baten bila datoz, eta lortzen dute, baina ez da bide erraza", dio. Ainhoa Zabartek eta Unai Urizarrek ere parte hartu dute lanean.

Pozik lanaren harreragaz

Otsailaren 27an estreinatu zuten *Zaldibartik mundura*. "Dokumentalari eskerrak, jende asko konturatu da Zaldibarren ere zeregin handia dagoela arrazismoaren gaia dela eta, batez ere ikastetxe eta eskolatan", adierazi dute. Biharko emanaldiak 17:00etan eta 17:30ean izango dira liburutegi zaharrea.



Solange Rebeca S. B. Diatta.



Oihane Gulin abadiñarrak koronabirusaren aurkako lehenengo txertoa jaso du asteon.

"Babes neurriak hartu arren, txertoagaz lasaiago lan egingo dudalakoan nago"

Oihane Gulin abadiñarrak AstraZenecaren txertoa jaso du aste honetan, Osasun Sailak Ilunbeko zezen plazan (Donostia) ipini duen txertaketa masiborako gunean

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Dena "oso azkar" eta aurreikusitako moduan joan dela adierazi du Oihane Gulinek (Abadiño, 1992). Asteon, koronabirusaren kontrako txertoa jaso du Osasun Sailak Donostiako Illunbe zezen plazan ipinita duen txertaketa masiboen gunean. "Joan zen astean, gure zentroko koordinatzaileari deitu zioten txertoa ia zenbatek ipini gura genuen galdetzeko. Niri domekan jakinarazi zidaten gaur txertatuko nindutela", azaldu du.

Gulinek Bergaran (Gipuzkoa) du lantokia. Aransgi elkartean lan egiten du, Gipuzkoako Gorren Familien elkartean. Hori delata, hainbat eskolatar joaten da

gorrak diren ikasleei hezkuntza arreta berezia eskaintzera. "Txertoa hartzeko aukera eman didate eta aukera baliatu dut. Norbere partetik aletxo bat ipintzea inportantea dela iruditzen zait, azken finean, umeekin lan egiten dugu eta. Babes neurriekin lan egin izan dugu beti, baina txertoagaz lasaiago ibiliko garelakoan nago. Itinerantzia handia dugu, batetik bestera gabiltzalako. Bergararik Urretxura eta Zumarragara joaten naiz", dio.

Gulinek asteon hartu du txertoaren lehenengo dosia eta maiztaren 25ean hartuko du bigarrena. AstraZeneca etxearen txertoa ipini diote.

Juan Mari Areitio 'Gaztelu'-k lurretako Ertzillako garaia eta ondarea zaintzera deitu du bertso batzuk kantatuta

IURRETA • EKAITZ HERRERA

Istorio txiki bat da honako hau. Herri txikietan pasatzen den istoriotxo horietariko bat. Juan Mari Areitio 'Gaztelu' bertsolariak egitasmo berezi bat egin du lurretako ondarea zaindu dadin eskatzeko. Bertso sorta bat eskaini die Ertzillako garaia eta hari izena ematen dion baserriko fatxadari. "Gipuzkoa aldean ikusi dut, leku pare batean, eskariak egiteko bertsotan hasi direla baserriar batzuk. Horixe egitea pentsatu dut neuk ere", adierazi du.

"Baserri ikusgarria izan zen hau. Orain erdi jausita dago. Teilatua de-seginda. Eta, bestetik, garaia dago, bere sasoiaren zati izandakoa. Orain urte batzuk, garaia jaustear zegoela eta, dena berriztu eta konpondu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak. Harrezkero ez diote jaramonik egin. Urte gutxi barru jausi egingo da berriro ere, baserriaren antzera", penatu da.

Areitioek lau bertsoz osatutako sorta prestatu du Ertzillako garaia eta inguruko ondareak zaindu dai-

tezen eskatzeko. Bertsoetariko batak honela dio: "Gure lehengo arotzak / ta lehengo harginak / hoiiek egin zituzten / gure eraikinak / ikusgarriak eta / benetan bikainak / zaintzen egin behar duz / gure ahaleginak / gure aitonen / izerdiz eginak".

ANBOTOk bideo bat egin du asteon, Ertzillako garaian bertan Juan Mari Areitio elkarrizketatuta. Bere gogoetak eta lau bertsoak ikusi eta entzun daitezke bideoan. Horretarako, anboto.org atarira jo behar da.



Juan Mari Areitio 'Gaztelu', Ertzillako garaia zaintzera deitu du bertso batzuk kantatuta.

Berokuntzarako propanoa kendu eta aeroterminia sistema ipiniko dute Mañariko Udalaren eraikinetan

Orain dagoen propano bidezko sistemagaz alderatuta, ingurumenaren aldetik jasangarriagoa eta ekonomikoki merkeagoa delako hartu dute aldatzeko erabakia

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko Udaleko hainbat eraikinetan berokuntzarako erabiltzen duten sistema aldatu egingo dute. Orain propanoa erabiltzen dute udal eraikina, liburutegi zaharra eta haurreskola berotzeko. Sistema hori aeroterminia bidezkoagaitik aldatuko dute. Aeroterminia sistemak aireak duen energia erabiltzen du berotasuna sortzeko.

Lanak Alet izeneko enpresari esleitu dizkiote. Proiektuak 38.000

euroko aurrekontua izango du. Lanak maiatz inguruan hastea espero dute, Herriko Taberna birmoldatzeko obrekin batera.

Propanoagaz alderatuta dirua aurreztuko dutela da aeroterminia

Lanak Alet izeneko enpresak egingo ditu eta 38.000 euroko aurrekontua izango dute

sistema ipintzeko arrazoiatariko bat. Horregaz batera, ingurumenaren aldetik jasangarriagoa ere badela adierazi dute udaleko iturriek.

Orain, propano bidezko sistema frontoiaren atzealdeko gela batean kokatuta dago. Aeroterminia bidezkoa, seguruenik, gune biren artean banatuko dute: frontoiaren atzealoko gelaren eta udaletxera igotzeko eskaileren azpian dagoen gelaren artean.



Udal eraikinean, liburutegi zaharrean eta haurreskolan ipiniko dute sistema berria.

Durangaldea asteen

Abadiñoko Udalak bizikletak garbitzeko gune bat zabaldu du Traña-Matienan

Abadiño | Traña-Padura industrialdean bizikletak garbitzeko gunea ipini dute. Gunea erabiltzeko asmoa dutenek izena eman beharko dute udaletxean, bertara joanda zein telefonoz deituta. Aurretik, Abadiñoko Udalak Zelaietan zabaldu zuen bizikletak garbitzeko beste gune bat, 2018ko urtarrilean.



Izurtzan aholkularitza zerbitzu berria abiatuko dute nagusien jarduera fisikorik egokiena zein den azaltzeko

Izurtza | Durangaldeko Mankomunitateak eta Izurtzako Udalak kirol orientaziorako zerbitzu berria abiatuko dute Izurtzan. Erabilera anitzeko lolakean eskainiko dute, martitzenetan, 11:30etik 13:30era. Pertsona bakoitzaren beharizan kontuan hartuta, jarduera fisikorik egokiena sustatzea da ekimenaren helburua, bai taldeko aktibitateen bitartez, bai entrenamendu indibidualizatuen bitartez. Zerbitzu hau 65 urtetik gorako emakume sedentarioei zuzenduta dago batez ere. Edozelan ere, beste pertsona batzuek ere parte hartu ahalko dute.

Beste herri batzuetan ere indarrean dago: Mañarian, Izurtzan, Zaldibarren edo Elorri hitzordua hartzeko, hau da deitu beharreko telefonoa: 747 493 680. Abadiñon eta Berrizen hitzordua hartzeko, ostera, zenbaki honetara deitu behar da: 747 493 681.



Iritzia

18 SOLAIRUKO NEGOZIOA

Ez da berria, ez gaitu sorpresaz harrapatu. Durangoko erdigunean 18 solairuko 5 etxebizitza-dorre eraiki nahi dituzte. Ez dira berriak ere makroproiektu honen atzean dauden eragileak, politikoak zein ekonomikoak, etekin monetarioetan besterik pentsatzen ez duten horiek hain zuzen ere.

Etxebizitzaren gatazka erdibiditzen gaituen momentu honetan; gazteok emantzipatzeko zailtasun handiak ditugunean, kaleratzeek jarraitzen dutenean eta Durangoko herrian etxebizitza huts ugari dauden bitartean, batzuen ustez irtenbide egokiena herria eraldatuko duen 554 etxebizitza berri eraikitzea da. Beharretatik negozioa eginez, eskubideetatik etekin ekonomikoak.

Hala eta guztiz ere, herri mugimenduari zein herri inplikazioari esker, alternatibak daudela jakin izan dugu, bideragarritasunez erakitako alternatibak alegia. Martxoaren 14an Durangoko herritarro hitza eskatuko zaigu, gure etorkizuna eraldatuko duen erabakia har dezagun.

Normala ez den arren, herritarren parte hartzea eskatu da, honelako proiektuak herritik eta herriarentzat gauzatu behar direlako, honelako proiektuak ekonomia ez ezik, ingurumena, gizartea eta sen ona ere kontuan izan behar dituelako.

Beraz, martxoaren bigarren igandean, bete ditzagun hautetsontziak! Herriak baitauka erabakia eta legitimitatea, alternatibak etorkizuna.

Arrate Elkoro Zengotitabengoa

ELA Germika/Durango Eskualdeko Arduradunak.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

Estetika gida

anboto



NUKLEO
ileapaindegia
946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia




IUNIK
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491





ITZALAK

Beheko itzal hauetatik zein dago ondo?





BIKOTEAK SORTU




IRUDIAK OSATU

Margotu lauki zurietan
dagokion segida.





LETRA-ZOPA

Topatu zazpi animalia
hauek letra-zopa honetan.












B	J	X	Z	E	B	R	A	X	D	N	D	J	J
Z	H	H	N	Z	I	Y	U	Q	B	C	S	G	T
C	I	G	G	C	K	Q	Y	X	X	N	C	U	C
T	P	H	L	V	Y	E	O	R	N	Y	J	J	T
F	O	Y	L	E	H	O	I	A	G	G	H	Y	I
X	P	W	N	L	O	F	Z	M	N	V	P	J	G
J	O	N	X	J	Q	O	D	A	L	T	D	G	R
I	T	E	L	E	F	A	N	T	E	A	T	P	E
G	A	M	Z	L	Y	Y	K	Z	P	S	X	I	A
D	M	B	Z	K	D	B	F	S	B	A	K	Q	V
W	O	I	W	Q	M	J	F	J	I	R	A	F	A
W	A	E	T	X	I	M	I	N	O	A	Z	M	C
T	E	D	V	P	F	W	H	C	V	Z	W	C	
Z	A	M	I	O	U	C	X	M					





ZENBATU

Mota bakoitzeko zenbat txori daude?

SUDOKUA

Kokatu beheko irudiak lauki zurietan.



Emakumeen nazioarteko eguna



ABADIÑO

Martxoaren 8a

00:00 Apaindu zeure balkoia, atera amantala, arropa edo osagarri moreak jantzi eta zatoz!
16:00 Espazioen apainketa. Ferialekuan.
16:30 Kafe-merienda (bakoitzak berea ekarri). Ferialekuan.
17:30 Perkusio afrikarra. Ferialekuan.
18:00 Irakurketa eta Zutik Emakumeak abestu. Ferialekuan.
19:30 Kontzentrazioa. Traña Matienan.
19:50 Perkusio afrikarra Sökölé eta jabekuntza eskolako ikasleen eskutik Traña Matienan

Martxoaren 12a

19:00 Kontzertuak: Bidane Txopitea Bilbao eta Iker Ruiz de la Alegria Medel. Onintza Azkarate Retolaza, Amaia Jaio Apellaniz eta Joana Keen Moronatti.

Martxoaren 26a

19:00 'Fotos, Hormonas y Lexatin' Tdiferencia Antzerki feminista. Errota Kultur Etxean.

Martxoaren 27a

'Coronavirus-arekin (ere) bidea egiten badakigu' tailerra.

BERRIZ

Martxoaren 6a

19:00 Alicia Wonderren kontzertua. Kultur Etxean

Martxoaren 8a

12:00 Emakume pentsiodunekin bat manifara! Udaletxean hasita, Olakueta plazara.
18:00 Liburuxkaren aurkezpena. Kultur etxean. Izen-ematea liburutegian.
19:15 Kontzentrazioa Olakueta plazan. (Antolatzaileak: Azeri gorriak, Gure Izarrak eta Emakume pentsionistak).

Martxoak 12-14

19:00 La Boda De Rosa filma. Kultur Etxean.

Martxoak 13

19:00 'Atzerrian Lurra Garratz' antzezlan. Kultur Etxean.

Martxoak 26-28

19:00 'Las Niñas' filma. Kultur Etxean.

DURANGO

Martxoaren 6a

19:00 La punta de mi nariz. Zirkua. Ikuskizun akrobatikoa. San Agustin kultur gunean.

Martxoaren 7a

12:00 Martxoaren 8ko giza mosaiko morea. Santa Ana plazan.

Martxoaren 13a

19:00 Abesti feministen III. Lehiaketa. San Agustin kultur gunean.

Martxoaren 16a

19:00 XVIII. Zinegoak. Bilboko gaylesbitrans nazioarteko zinema eta arte eszenikoen jaialdia. San Agustin kultur gunean.

Martxoaren 25a

19:00 Irantz Varelaren hitzaldia: 'Engendrar el sistema: mirada feminista a la explotación reproductiva'. Andereak elkarte. San Agustin kultur gunean.

Martxoan zehar

'Sortu zure matxismoaren kontrako txertoa'. Batxilergoko zentroetan.

ELORRIO

Martxoaren 6a

08:30 Mendi martxa emakumeentzat. Aurten Elorrión hasi eta amaituko da. 5 orduko ibilbidea. Zailtasun ertaina. Doakoa izango da, baina izena eman beharko da berdintasuna@elorrio.eus - 94 657 08 09
11:00 'Lan asistentzialak emakume beharginengan sortzen dituen zapalkuntzak' Berbaldia. Elorrioko Gaztetxean.
16:30 Mugak, arrazakeria, migrazio politikak eta transnazionalak. Solasaldia Arriolan.

Martxoaren 7a

09:30 Elorrioko Lilatoia. Oinez, bizikletaz, patinetean, korrika... Plazatik hasita. Jarraian osatze errituala plazan.

Martxoaren 8a

18:00 Elorriarrek ikastetxeetan egindako bideoaren ikuskizuna: zaintza-lanen eta zaintzaileen ikusgarritasuna. Udaletxeko atarian.
18:30 Kontzentrazioa plazan.
18:45 Manifestazioa plazatik hasita.

Martxoaren 9a

18:00 Elorrioko zaintza-lanak eta zaintzaileak. Aurrez izena eman beharko da berdintasuna@elorrio.eus - 94 657 08 09

Martxoaren 13a

11:00 Argiñetako Altxorra. Bisita gidatua emakumeentzat (Gaztelaniaz).

12:00 Argiñetako Altxorra. Bisita gidatua emakumeentzat (Euskaraz).

Aurrez izena eman beharko da turismo bulegoan, berdintasuna@elorrio.eus, 94 682 01 64 edo 94 657 08 09.

IURRETA

Martxoaren 5a

19:00 Aitziber Izquierdoren 'Escupido amor' antzezlan. Ibarretxe kultur etxean. Sarrera gonbidapenagaz.

Martxoaren 8an

18:30 Mobilizazioa Askondon. Iurretako Gazte Asanblada.
19:30 Emakumeen Nazioarteko Adierazpenaren irakurketa eta Kandela Morea, Askondon. Gonbidapenagaz.

MALLABIA

Martxoaren 7a

12:30 Luze edo motz antzezlan. Herriko frontoian. Euskaraz, helduentzat.

Aurretik: Karmele Gisasolari omenaldia. Erakusketa: Emakumeak eta baserria. Herriko frontoian.

Martxoaren 8a

18:00 'Martxoak 8 egunero da' kontzentrazioa. Udaletxe aurrean. Adierazpen instituzionalaren irakurketa.

Martxoaren 12a

17:00-19:00 Gizonen desboteretze tailerra. Kontzejuzarrean. Gizonentzat.

Martxoaren 14a

12:30 Alter ego antzezlan. Helduentzat.

MAÑARIA

Martxoaren 8a

18:00 Elkarretaratzea plazan.

OTXANDIO

Martxoaren 6a

17:00-20:00 'Zer egiten dugu gure pribilegioekin'. Tailerra.

Martxoaren 7a

13:15 Ekitaldia plazan.

18:30 Zinegoak gaztetxean.

Martxoaren 8a

18:30 Elkarretaratzea plazan.

Martxoaren 13a

18:30 'Wiki emakumeak' solasaldia Marisa Barrenagaz. Kultur etxean.

Martxoaren 14a

18:30 'Erradikalak ginen' antzezlan. Gimnasioan.

ZALDIBAR

Martxoaren 7a

9:00 Morez jantzi dezagun Santamañezar. Udaletxeko plazan.
11:00 Argazkia tontorrean.
13:15 Ekitaldia plazan.
18:30 Zinegoak, gaztetxean.

Martxoaren 8a

'Zaldibar Indarkeria Matxistaren Auka' seinaleak ekimenaren aurkezpena.
13:00 Elkarretaratzea Artiako bidegurutzean.
19:00 Manifestazioa udaletxeko plazan.

Martxoaren 10a

18:00-20:00 Mindfulness tailerra euskaraz eta gazteleraz.

ZORNOTZA

Martxoaren 1etik 31ra

Emakume anitzen eguneroko borrokak. Argazki erakusketa. Lagun artean elkarte. Zelaietan.

Martxoaren 5etik 18ra

Emakume baserritarrak. Argazki erakusketa. Gaittun elkarte. Itsas landa inguruneke emakumeak. Herriko plazan.

Martxoaren 5ean

18:30 Zerbitzu sexologikoaren ekintza berezia. Gazteei zuzenduta. Gazte Txokoan.

Martxoaren 6a

09:00 Auzolana: Pankartea eta herria "apaindu". Herriko plazan
11:00 'Kapitalaren aurrean erresistentzia feministak'. Tertulia. Aforo mugatua. Izen ematea: m8zornotza@gmail.com

Martxoaren 7a

Emakumeen Memory. Jolasa. Gazte Txokoan.
16:00-19:00 'Neska* gazteok elkar saretuz sistema arrakalatu'. Suhaziak. Aforo mugatua.

Martxoaren 8a

12:00 Kontzentrazioa eta adierazpen instituzionalaren irakurketa. Herriko plazan.
Argazki lehiaketa Instagramen. Gazte Txokoan.
18:30 Manifestazioa Erreferendum plazan.

Martxoaren 9a

18:00 Ba ote dago matxismo gure seme-alaben hezkuntzan? Hitzaldia sarean. Ikastetxeetako ikasleen familiei zuzenduta. Aurretiaz izena eman behar da.

Martxoaren 14a

19:00 Angela, verso suelto de Iparragirre. Antzerkiaren aurkezpena. Zornotza Aretoan.



'JANTZARI'

DOKUMENTALA DURANGALDEA :: Martxoan

Dantza tradizionalaren garapena 'Jantzari'-ren eskutik

Iurretako dantza taldearen, Bi-deografik ekoiztetxearen eta ANBOTOren arteko elkarlanari esker, sortutako *Jantzari* dokumentala ikusteko aukera egongo da Durangaldean, martxoan zehar. Bihar, Mañarian eskainiko dute. Liburutegi zaharrean izango da

emanaldia, 18:00etan. Abadiñon, martxoaren 12an egongo da *Jantzari* ikusteko aukera, 12:00etan, Errota kultur etxean.

Eskualdetik kanporako hitzordu batzuk ere zehaztuta daude: Zeanurin martxoaren 8an, Iruen 9an eta Igorren 25ean.

Martxoaren Setik 7ra arte

DURANGO azoka
16. Aukera Azoka, Landako Gunean. Gaur eta zapatuan, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara. Domekan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Martxoaren Sean

ELORRIO antzerkia
'Yo, nunca' (Krisol Konpainia), 19:00etan, Arriola antzokian.

ZORNOTZA antzerkia
'Konpromisoa' (Philippe Claudelen Komedia), 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Martxoaren 6an

IURRETA irteera
Abentura ekintzak, 10:30etik 13:30era, Maiztegiko frontoian. 12tik 18 urtera arteko gaztetxoei zuzendutako ekintza: rappela, tirolina, kutxen dorrea... Whatsapp bidez eman behar da izena honako telefono zenbakian: 688 77 52 74. Beharrezko segurtasun neurriak hartuko dira.

ZORNOTZA antzerkia
'Koloreen doinuak' (Zornotzako Musika Banda), 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Martxoaren 7an

ELORRIO ikuskizuna
Ipuin dantza (Oihan Vega), 16:00etan, Arriola antzokian.

Martxoaren 9an

ZORNOTZA dokumentala
'My Mexican Bretzel', 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Martxoaren 10ean

ABADIÑO ipuin kontaketa
Ane Gebara ipuin kontalaria, 17:00etan, Udal Mediatekan. 4-5 urteko umeei zuzendutako saioa. Ondoren, 17:45ean, LHko 1. 2. eta 3. mailakoei zuzendutako saioa.

Martxoaren 12an

BERRIZ antzerkia
'Italino, Gran Hotel' (Companiya La Tal), 17:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

ZORNOTZA antzerkia
'¿Qué fue de Ana Garcia?' (Pabellon N°6 konpainia), 19:00etan, Zornotza Aretoan.

Martxoaren 13an

BERRIZ antzerkia
'Atzerrian lurra garratz' (Artedrama antzerki taldea), 19:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

Martxoaren 14ra arte

DURANGO erakusketa
'Alegiazko paisaiak eta ironiaren irudiak' (Ramon Zuriarrainen margolanak), Arte eta Historia Museon.

Martxoan zehar

ABADIÑO erakusketa
'Naturaren uneak nire kamaratik. Momentos de la naturaleza tras mi objetivo' (Joseba Carcavillaren argazkiak), Errota kultur etxean.

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zinema

:: Abadiño ERROTA KULTUR ETXEA

- **El chico**
zapatua 6: 19:00
- **Mr Link. El origen perdido**
domeka 7: 17:00

:: Berriz KULTUR ETXEA

- **Ninja a cuadros**
barikua 5: 17:00
domeka 7: 17:00

:: Durango ZUGAZA

- **Non dago Mikel?**
barikua 5: 19:30
zapatua 6: 19:30
domeka 7: 19:30
astelehena 8: 17:30/19:15
martitzena 9: 19:00
eguaztena 10: 18:30
- **Y llovieron los pájaros**
barikua 5: 19:00
zapatua 6: 19:00
domeka 7: 19:00
astelehena 8: 18:00
martitzena 9: 19:00
eguaztena 10: 18:30



• **Raya y el último dragón**

barikua 5: 19:00
zapatua 6: 16:30/17:15/19:00
domeka 7: 16:30/17:15/19:00
astelehena 8: 18:00
martitzena 9: 19:00
eguaztena 10: 18:30

:: Elorrio ARRIOLA

- **Volver a empezar (Herself)**
zapatua 6: 19:00
domeka 7: 19:00
astelehena 8: 19:00

:: Zornotza ARETOA

- **Dating Amber**
domeka 7: 19:00
astelehena 8: 19:00

“Bertako historiaz eta mitologiaz abestea alde markatzeko baliagarria dela uste dugu”

'Baskavigin' bosgarren lanagaz, Incursed talde bizkaitarrak Europatik ahalik eta kontzerturik gehien eskaintzeko asmoa du



Lander Lourido, Oier Calvo, Jon Koldo Tera, Asier Amo eta Haitz Etxebarria.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Incursed 2007tik martxan dabilen taldea da. Metala jorratzen dute, folk eta pagan ukituekin. Otsailan euren ibilbideko bosgarren lana kaleratu dute, 'Baskavigin', Helheim diskoetxeagaz. Egun, taldea Lander Louridok (gitarra eta ahotsak), Haitz Etxebarriak (baxua), Asier Amok (bateria), Jon Koldo Tera (ahotsa eta teklatura) eta Oier Calvok (gitarra eta ahotsak) osatzen dute; Tera eta Calvo durangarrak dira, eta Orion Child taldeko kide ere badira, besteak beste. Incursed taldeak nazioarteko proiektzioa du, eta, besteak beste, Leyendas del Rock, Milagre Metaleiro eta Metaldays jaialdietan egon izan dira

kontzertuak eskaintzen. Zuzeneko musikarako sasoi hobekak allegatu bitartean, taldekideak pozik eta harro daude 'Baskavigin'-en egindako lanagaz.

Pozik lan berria edukitzen dabilen harreragaz?

Bai, estatuan kritika asko eta oso positiboak jasotzen gabiltza, eta nazioartetik ere heldu zaizkigu, Mexikotik edo Austriatik, esate baterako. 'Baskavigin' deitu diozue diskoari. Zergaitik?

Orain urte batzuk, Islandian euskaldunak hiltzea onartzen zuen legea indargabetu zuten, eta horrek interesa piztu zigun, istorio bitxia iruditu zitzaigun. Garen herria

izanik, eta dugun historia edukita, badugu zer kontatu.

Tematika aldetik, azkeneko lanetan ahalegin berezia egin duzue.

Aspalditik genuen buruan kontu hori. Penintsulako taldeak viking metala egiten ikusten genituenean barreak irteten zigun. Gurearen moduko estiloan ohikoak dira vikingoei buruzko berbak. Bakioztzak gura duena egin dezala, noski, baina bikingoak Zaragozan? Mesedez! Amalur diskoan ere, bertako kulturagaz zerikusia duten gaiak jorratu genituen, eta honetan bide horretatik jarraitu dugu. Aldea markatzeko ere baliagarria izan daitekeela uste dugu. Lagun asko dugu hortik zehar metal doinu

hauek gustuko dituztenak, eta guk dugun historiagaz eta mitologiagaz beste zerbait eskaini behar genuela uste genuen.

Hala ere, ez da disko kontzeptual bat. *Black Hunter* abestiko protagonista Mateo Txistu da, adibidez. *Paxi porroi*, *homebrewer* edo garagardo egile bati buruz abesten dugu. Bere edariak egiten ditu; probak egiten dabilela, sekulako mozkorrak harapatzen ditu.

Musika aldetik, ahotsak bereziki landu dituzue.

Zuzenekoetan ez zaigu gustatzen aurretik grabatutakorik erabiltzea. Oier taldera sartu denetik, hiru abeslari peto gaude eta grabatzera koan horri zukua atera behar ge-

niola uste genuen. Esango genuke zuzeneko ahots horiek gure taldearen identitateagaz lotuta doazela. Ikusleek flipatu egiten dute.

Elderslieden nahikoa heteroak ziren abestiak; *Amalur* diskoan, ostera, zuzenagoak. Taldekide aldaketa igarri zen, eta, oraingo honetan, are gehiago.

Oier, zuk eta Jon Koldok Orion Child taldean ere jotzen duzue. Izurritearen eraginez, bira bertan behera utzi zenuten. Incurseden ere eragina izan du?

Atzeratu egin behar izan dugu publikazioa. Badakigu zuzenean aurkeztuko duguna, baina beldur gara lehen kolpe hau ez baliatzeaz. Industria aldatu egin da eta horrek bere alde onak ere baditu. Zaletu

“**Ea hau guzti hau amaitu eta ganoraz jotzeko aukera dugun. Metala garagardoa eta pogoak dira**”

lez, milaka talde ezagutzeko aukera daukagu. Horrez gainera, flipatu egiten dugu, 50 herrialdeetatik entzuten gaituztelako. Baina guk inbertsioa egin dugu eta diru hori taldera itzultzeko, zuzenekoak beharrezkoak ditugu. Eta guretzat zaletasuna da, baina jendeak ulertu behar du milaka familia bizi dela honetatik.

Eta hemendik aurrera?

Ea hau guzti hau amaitu eta ganoraz jotzeko aukerarik dugun. Metala garagardoa eta pogoak dira. Penintsulatik ahalik eta gehien jo, eta Europara irtetea gustatuko litzaiguke. Putzua igarotzeko aukera badugu, oraindino hobeto. Ondo pasatzea eta ahalik eta gehien mugitzea da gure helburua. Hori da bidea handiagoak egiteko. Esaten den moduan, bidea egitea da garrantzitsuena, eta guk horixe gura dugu, entseatzea eta bidelagunekin elkartzea; metalezaleok familia handi bat gara eta sekulako gogo dugu eurekin berriro elkartzeko.

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Saltsan

MAKALLAU SALTSAN KATERIN zabalik dago!

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri:

688 773 205 / 688 734 329

#etorritadastau #unezaitanerezureondoan

saltsan.com

LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Sorginolako Ateneo proiektu literarioko kideek labean dute Berbaz aldizkariaren hirugarren alea. Durangaldeko hamazazpi artistaren lanei eman diete oihartzuna; horietariko batzuk elkarlanean sortu dira, gainera. Edizio berri honetan, gai nagusi bi jorratu dituzte: heriotza eta arte soziala. Edukia ez ezik, edizioa ere bereziki zaindu gura izan dute; Ainhoa Olasok egin du azala, eta Martin Loizate arduratu da maketazioaz. Martxoaren 14ra arte aurre salmenta egiten dabilta, sare sozialen bitartez. Gero, ohiko bideetatik eskuratu ahalko da liburua.

Zein nobedade dakartza ale berri honek?

Leire Vargas: Testu sorta bat barik, koherentzia zuen lan bat egitea lehenetsi dugu oraingoan. Aldizkaria lau ataletan banatu dugu, eta horietariko bitan gai nagusi bi jorratzen dituzte egileek: heriotza eta arte soziala. Ikuspuntu desberdinetatik jorratu ditugu gai hauek, izan ere, parte hartu duten kideen artean ere denerik dago.

Arrate Erdoiza: Gugandik aparte, beste 15 bat kidek parte hartu dute. Batzuek idazteko zaletasun edo ohi-tura gehiagogaz besteek baino, eta hori ere aberasgarria da.

Gazteek badute idazteko zaletasuna?

L.V.: Hain zuzen ere, honek erakusten du jendeari horrelako aukerak eskainiz gero, interesa pizten duela.

A.E.: Nik prozesua plazeretik bizi izan dut. Aurretik ere idatzi dut Berbazen. Orain, baina, proiektuaz

“Testu sorta bat barik, koherentzia duen lan bat egitea lehenetsi dugu”

Sorginolako Ateneo proiektu literarioak prest du 'Berbaz' aldizkariaren hirugarren alea; hamabost bat gaztek parte hartu dute



Arrate Erdoiza eta Leire Vargas
Ateneo Literarioko kideak
Durango

“**Aurrez aurreko aurkezpena egingo dugu, baina ez dakigu noiz izango den posible**”

arduratu, beste modu batera gozatu dut.

Idaztea ariketa bakartia izan ohi da. Zuek kolektibizatu egin duzue.

L.V.: Kasuetariko batean, adibidez, Mikel Uribelarrearen ilustrazio batek iradokitakotik idatzi dute. Elkar elikatuz, beste maila batera eramane daiteke lana. Eta bakoitzak

bere etxean egin arren, irakurleak sorkuntza kolektibo baten emaitza jasotzen du.

A.E.: Sorkuntza kolektibotzat hartzen denaren adibide argia da hau. Adibidez, lanetariko bat Elena Olabe hasi zen egiten, eta Jone Ercilla batu zitzaion gero. Beharbada, beste modu batera ez zuten elkarregaz

lan egingo, baina horrelako proiektu bati eskerrak horrela izan da.

Egingo duzue aurkezpenik?

L.V.: Aurrez aurreko aurkezpena egingo dugu, baina ez dakigu noiz. Koronabirusaren eraginez egitekoak genituen bertso saioa eta poesia irakurtaldia, esaterako, bertan behera utzi behar izan genituen.

Gai librea

Faseak

Euskaraz sortu eta gaztelaniaz eskolartzearen ondorioz, “fase A, fase B eta fase C” ikasi genituen “A fasea, B fasea eta C fasea” ikasi baino lehen. Horrela, Mundu Gerraren faseak, ilargiaren faseak, ur-tanta baten ibilbidearen faseak, zelula banatzearen faseak, ... Horiexek izan ziren gure hastapenetako faseak.

Irakaskuntzan, ostean, gogoan dut hitz hori ohiko genuela ikastaldea deskribatzean, ikasprozesuko ezaugarriez aritzean edota baita eduki gramatikalak faseka zatikatzen genituen ere, hobeto irakatsiko genituelako ustean edo.

Baina, zer adierazten digute faseak? Denbora tarteak, eboluzioa eta aldaketak. Horien bitartez mugatu daiteke fasea zer den. Gure burmuinak antolatu zaleak dira eta, ondorioz, faseka banatu behar izaten dituzte ezagupenak, behar bezala ulertzekotan.

Fase analogikotik digitalerako erre-



Josune Aranguren Zatika
Filosofoa

Zein fasetan zaudete zuek? Zein fasetan nago ni? Amaitzeaz ote da fase hau? Zure hurrengo fasea zein da?

Fase aldaketa hau luzetxoa ez al da? Hasi eta amaitu egiten baitira faseak. Beti. Ala ez beti?

sistentziaz entzun berri dut, telelanari buruzko ikastaro batean gaur goizean. Fase horretaranzko bidean bainaiz. Ez dakit deseskalatzearen zein fasetan gauden edota pandemiari zenbat eta zeintzuk fase geratzen zaizkion zeharkatzeko oraindik ere. Txertaketak ere, nola ez, faseka datoz. Faseak, faseak nonahi.

Ilargiaren menpeko edo bestelako, hileroko ere emakumezkoek geure faseak ditugu. Eta adin batetik aurrera, gainera,

beste fase batzuei buruzko informazioaren bila abiatu beharreko fasea heltzen zaigu: doluaren faseak, hilekoaren erretiroaren faseak edota lo-orduen faseak.

Zein fasetan zaudete zuek? Zein fasetan nago ni? Amaitzeaz ote da fase hau? Zure hurrengo fasea zein da? Fase aldaketa hau luzetxoa ez al da? Hasi eta amaitu egiten baitira faseak. Beti. Ala ez beti?

Aldaketa bera fase bihurtzen ari zaigula nabaritzean, sokan ibiltzen ikasteko fasea dator. Edo orduko eskola erdaldun hartan ikasi genuenaren arabera, “se hace camino al andar”. Nago ia faseak iragangaitz bihurtuz ez ote doazen. Egunerokoan geure buruari goizero egiten diogun azterketa txikitxoak honakoa da: zelako altxatu naiz gaur? Fase berri batean sentitzen al naiz? Lanean, osasunean, harremanetan, gorpuzkeran... Ala mindfulness beharrezko fasean sumatzen nauzue, akaso?

<http://josunearanguren.blogspot.com/>



Pedro Moreno

Eneko Aretxaga eta Iñigo Beitia.

“Hasieran, lotsagaitik-edo, siku samar aritu ginen esatari lanetan, baina bigarren partidurako soltatu, eta gustura ibili ginen”

Durango Rugby Taldeko partiduen zuzeneko emankizunetan esatari lanak egin dituzte

ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO

Durango Rugby Taldeak bere partidua zuzenean ematea ez da nobedadea, baina joan zen astean ukitu berezi bat eman zioten: euren youtube kanalean egindako streaming-ak esatari bi izan zituen: Iñigo Beitia eta Eneko Aretxaga. Beitiak aurten utzi du taldea, Donostian ikasten dabilelako. Aretxaga DRTko jokalaria da, baina lesionatuta dago. Horrela, baloia mikrofono batengaitik ordezkatu zuten joan zen asteburuan. Beitiak erantzun die ANBOTOk galderei.

Zelan heldu zitzaizun esatari izateko proposamena?

DRTren partidua zuzenean ematearen kontua orain lau bat urte sortu zen. Orduan, gizonen talde nagusia Ohorezko B Mailan zebilen eta federazioak talde guztiak partidua streaming bidez ematera behartzen zituen. Klubetik laguntza eskatu zuten hori aurrera eramateko, eta bo-

luntario aurkeztu nintzen. Pedro Morenok partidua grabatzen zituen eta bageneukan kamera. Arlo teknikoa bideratzea zen kontua eta horretan ibili ginen. Baina orduan ez zegoen esatari-rik. Orain bi-hiru aste, klubeko Aratz Gallastegik ea esatari lanak

“**DRTren partidua ikustera joango nintzela esan nion eta, behin joanda, prest nengoela laguntzeko**”

egitera animatuko nintzen esan zidan. Seguruenik DRTren partidua ikustera joango nintzela esan nion, eta behin hara joanda laguntzeko prest nengoela. Horrela sortu zen.

Teknikoki gatz da horrelako zerbait aurrera eramatea?

Soinuagaz eta bestelako gauza batzuekin laguntzeko, horretan aditua den David Maeztoren laguntza izan genuen. Pedro Morenoren lana ere goraiatu gura dut. Berak partidua kameran ematen dituelako egin dezakegu hau guzti hau. Bestela, ezinezkoa litzateke.

Egin duzu inoiz esatari lanik?

Ez, joan zen asteburura arte sekula ere ez. Ez dut inoiz ezer ere komentatu, ez euskaraz ez gaztelaniaz.

Ez zinen bakarrik aritu.

Ez, Eneko Aretxaga eta biok ibili ginen. Bera DRTko jokalaria da, baina orkatileko lesioa dauka. Hor ibili ginen biok.

Zelan joan zen emankizuna?

Partidu bi eman eta komentatu genituen. Senior mailako partidua biok: emakumeena eta gizonena. Egia esanda, lehenengo partiduan, lotsagatik edo, siku samar

egon ginen, baina bigarrenako soltatu ginen eta gustura aritu ginela esango nuke.

“**Errugbiko araudia zabala da, ez oso erraza ulertzeko, eta azalpen teknikoak ematen saiatu ginen**”

Aurretik, egin zenuten prestaketa lanik? Taldeen datuak eta estatistikak begiratu...

Ez, inprobatua izan zen. Partiduen aurretik taldeen ha- maikakoak pasatu zizkiguten eta horregaz nahikoa izan zen. Azkenean, talde biak barrutik ezagutzen ditugu.

Partiduan gertatzen dena kontatzera mugatu zineten ala iritzia ere ematen zenuten?

Bietatik apur bat. Lehenengo partiduan gauza teknikoak ere azaldu gura genituen. Errugbiaren araudia zabala da eta, batzuetan, ulertzeko ez hain erraza. Beraz, horrelako gauzak ondo azaltzea gura genuen, meleak zeudenean eta abar. Bigarren partiduan, konfiantza hartuta, balorazio batzuk egin genituen, baina ez askorik ere.

Partidua hasi aurretik, esan zizuen inork “ni ez kritikatu, e?” edo antzerako bromarik?

Ba, ez (barreak). Baina jokalaria batek esan zigun entsegu bat lortzen bazuen guri eskainiko zigula. Eta entsegu bat egin zuen, baina eskaintzea ahaztu zitzaion. **Zuen bion artean ondo konpondu zineten?**

Baietz esango nuke. Hasieratik argi geneukan bion arteko sola-

saldiak arina izan behar zuela eta txandaka egin behar genuela emankizuna eramangarri egiteko.

Taldekideek zer esan dizute os-tean?

Beti egoten dira bromak. Zuzenean geunden bitartean, iaz emakumeen taldean egon zen jokalaria batek idatzi zigun. Ikusten zegoela esan zigun, eta animatu egin gintuen. Horrelako gauzak eskertzekoak dira.

“**Taldetxo bat sortzea da asmoa. Ni edozertarako prest nago. Laguntzeko balio badu, aurrera!**”

Zer egin zitzaizuen gaxena?

Orain, distantziatik eta patxada gehiagok begiratu, irudipena dut berdinak ziren gauza batzuk gehiegitan errepikatu genituela. Baina, tira, lehenengo aldia zen guretzat eta ikasteko balioko digu.

Prest zaudete hurrengo batean ere esatari lana egiteko?

Bai, taldetxo bat sortzea da asmoa. Ni neu prest nago, edozertarako. Laguntzeko balio badu, aurrera!

Donostian ikasten duzu eta Zarautzen bizi zara. Hango talderen batean errugbian jokatzeko zabilta?

Ez, egoera zelan dagoen ikusita ez aritzea erabaki dut. Durango ere batzuetan entrenatzen nintzen, eta beste batzuetan ez, intzidentzia tasaren arabera. Beraz, aurten ez aritzea erabaki dut.

Zuzeneko kirol emankizunak, apurka gora doan joera

Eskualdean, geroago eta kirol klub gehiagok zuzenean eskaintzen dituzte euren partidua, sare sozialek eta plataformek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatuta. Gora doan joera bat da. Gainera, harmailak itxita dauden edo edukiera mugatua duten sasoi honetan, zaleengana heltzeko modu egokia da.

Geroago eta ezagunagoa den Twitch izeneko plataformak erraztasunak ematen ditu zuzenekoak egiteko, eta Elorrio Kirol Klubak bertako *cd_elorrio* kontutik ematen ditu Euskal Ligan jokatzeko duen emakumeen taldearen partidua.

Youtube eta sare sozialek

Areto futboleko, Elorrioko Buskantzak bere Instagram kontua (Elorrioko Kuskantza FKE) darabil partidua zuzenean emateko. Maila berean jokatzeko duen Sasikoa klubak beste hainbeste egiten du 'Club Deportivo Sasikoa' izeneko youtube kanalean nagusien partiduekin.

Durango Ibaizabal Eskubaloia Taldeak ere emakumeen talde nagusiaren partidua zuzenean eskaini gura ditu, baina, horretarako, 1.000 jarraitzaile behar dituzte youtube kanalean. Honako hau da kanalaren izena: Ibaizabal Eskubaloia Durango.



Tabira Igeriketa Taldeko gazteak Elxen, txapelketa amaitu eta gero ateratako familia argazkian.

Tabira Igeriketa Taldeko gazteak bikain aritu dira Espainiako txapelketan

Kirolari askok euren denborarik onenak hobetu dituzte Espainiako Salbamendu eta Sokorrismo Txapelketan; gainera, askorentzat estreinaldia izan da maila absolutuan

IGERIAN • JOSEBA DERTEANO

Dominez haratago, badago kirolarien errendimendua baloratzeko neurgailu fidela bat: kronometroa. Egindako denborak erakusten du kirolari bat non dagoen eta norantz doan. Alde horretatik, Tabira Igeriketa Taldeko gazteak gustura egoteko moduan daude. Espainiako Salbamendu eta Sokorrismo txapelketan bide onetik doazela erakutsi zuten. Pandemia sasoiko entrenamenduak egokiak eta errentagarriak izan dira eta askok euren markarik onenak hobetu zituzten Exlen (Valentziar Herrialdea, Espainia).

Adrian Fernandez durangarra, esaterako, 5. tokian sailkatu zen aletekin manikia eramateko 100 metroko proban, eta ordura arteko bere denborarik onena hiru segundotan hobetu zuen. "Osasun krisia dela-eta ezin izan naiz hainbeste entrenatu, eta nire denbora hobetzea itzela da", azaldu du.

Peio Etxezarraga atxondarrak 6. tokian amaitu zuen 100 metroko sokorrismo proba eta bere denborarik onena segundo bitan hobetu zuen. Tabira Igeriketa Taldeko arduraduna den Gonzalo Diazek Etxezarragaren lana azpimarratu du. "Sekulako denbora izan da".

Beste hainbeste esan daiteke Iker Asiain durangarrari buruz ere. Ia hiru segundotan hobetu zuen bere markarik onena 50 metroko arraste proban.

Estreinaldian, 4. postua

Iñigo Fernandez de Arroiabe, Adrian Fernandez, Julen Azkarate eta Erenoitz Barrenetxea durangarrek osaturiko laukotea maila absolutuan estreinatu zen. Lehenengo hirurek 18 urte dituzte eta Barrenetxeak 17 ditu. Esperientzia handiagoko aurkariz inguratuta, haietariko asko baino hobeto aritu eta 4. geratu ziren, dominen atarian.

Urrezko dominak Eva Muñoa elorriarentzat, errekor eta guzti

Durangoko Kirol Taldeko atletak urrezko domina bi lortu zituen mailu jaurtiketan Master 50 mailako estreinaldian

ATLETISMOA • J.D.

Eva Muñoa (Elorrio, 1970) bikain aritu da jaurtiketa luzeen Espainiako neguko txapelketan. Master 50 kategorian estreinaldia zuen eta urrezko domina bi irabazi ditu mailu jaurtiketan. Gainera, kasu bietan txapelketa horretako errekor berriak ezarri ditu. Hiru kiloko mailua 36,29 metrora jaurti zuen; eta zazpi kilo pasatxokoa, 11,29 metrora.

"Kategoria berria zenez, ez nekien zer espero. Egia esan, hiru kiloko mailuagaz ondo sentitzen nintzen entrenamenduetan. Positiboa nintzen. Beste mailuagaz

oso gutxitan entrenatu naiz, pare bat egunetan bakarrik, pisu hori mugitzea gogorra delako", adierazi du Durango Kirol Taldeko kirolariak.

Iraitz Villa, krosean

Bestalde, joan zen asteburuko beste hitzordu garrantzitsu batean, Espainiako Kros Txapelketan, Aritz Villa abadiñarra 23 urtez azpiko eukaldunik onena izan zen. Sailkapen orokorrean 19. tokian amaitu zuen. Gontzal Murgoitio elorriarrak ezin izan zuen parte hartu, antigenoen testean positibo eman zuen eta.



Jokaldia

Errugbi eskola berriro martxan

Nork imajinatuko zukeen duela pare bat urte pandemia bat halako zabalkundea izatera iritsiko zenik? Gurera birusa etorri zenetik, ia urtebete eman dugu eskola kirola bideratzeko aukerarik gabe. Egoerak ez zituelako bermatzen jokalarien oinarritzko osasun baldintza minimoak.

Aurreko batean aipatu nuen kirola egitea denontzat onuragarria dela, batez ere umeez zein nerabeek kirola egitea ezinbestekoa dutela. Aditu guztiak ados daude azpimarratzean kirolaren bitartez gorputza zaindu eta garatu egiten dugula, batez ere bizitzaren hasierako urte horietan, gorputza garatzen den heinean, indarra, oreka, abiadura, koordinazioa... bideratzen ditugulako. Baina batez ere halako egoera berezia pairatzen dugunean, etxean konfina-



Gotzon Gomez Barrenetxea
Errugbia

"Argi dago gure gazteek zelaira bueltatzeko gogo itzela izan dutela, baloiarekin gozatzeko, korrika egiteko"

"Hor dugu errugbiaren indarra, den-denek lekua dutela, taldeak aniztasuna bultzatu eta horren beharra duelako"

turik, gertuko harremanak eten egiten direla, ukitzea, ebatzea, besarkatzea... oztopatzen denean denon onurarako, oso egoera gogorra bilakatzen da, batez ere gazteenentzat.

Dagoeneko martxan ditugu asteazken zein ostiraletako jardunak. Errugbi eskola berriro martxan dugu, momentuz entrenamenduetara mugatuta,

eta hain famatuak bihurtu zaizkigun "burbuilak" zainduz. Noiz izango da posible topaketak edo partidak bideratzea? Batek daki, denborak esango digu.

Argi dago gure gazteek zelaira bueltatzeko gogo itzela izan dutela, baloiarekin gozatzeko, korrika egiteko, baina, batez ere, beste taldekideekin egon ahal izateko, gizarteratze edo sozializazio prozesua sustatzeko. Errugbia talde kirola da, taldekideak, lagunak beharrezkoak dira, batek bakarrik ezin dezake ezer egin. Hor dugu errugbiaren indarra, den-denek lekua dutela, taldeak aniztasuna bultzatu eta horren beharra duelako.



Beraz, esperientzia berriak izan nahi badituzue zatozte Arripausuetako zelaira, eta Marrek, Jonek edo Davidek, eskolako arduradunek, bero bai bero hartuko zaituzte. Animatu zaitzete, me-rezi du eta.

Hemen eta online



Sartu anboto.org-en
menuan **iragarkiak**
atalean eta klikatu bertan.

Beheko logotipo honen gainean klik egin eta
iragarkilaburrak.eus orrialdera eramango zaitu



Zure datuak sartu
eta **erregistratu**
egin behar zara.



IRAGARKIA JARRI

Goian dagoen irudiaren gainean klik egin eta iragarkia idatzi. Sartu gura dituzun datuak eta gorde datu horiek. Agertzeko, herria aukeratzekoan ipini Durangaldeko herri bat.



Aste horretan argitaratuko dira anboto.org-en



HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA / NEGOZIOAK
DENERIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA / KIROLA
FAMILIA / ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten doan: partikularrentzat.
Erregistratu www.anboto.iragarkilaburrak.com webgunean eta ipini zure iragarkia (Agertzeko, herria aukeratzekoan Durangaldeko herri bat ipini).

Paperean, ordainduta: enpresentzat. Iragarki laburretatik bereiztuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94 621 79 02 telefonoan.



Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Ari (838. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.

Botikak

BARIKUA, 5 - 09:00-09:00	09:00-22:00
UNAMUNZAGA Muretatorre 2C - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	ASTELEHENA 8 - 09:00-09:00
09:00-22:00	ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	09:00-22:00
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
ZAPATUA, 6 - 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	MARTITZENA, 9 - 09:00-09:00
09:00-13:30	BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - ABADIÑO	09:00-22:00
GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	EGUAZTENA, 10 09:00-09:00
NAVARRO ARTEKALEA 6 - DURANGO	DE DIEGO Intxaurrondo 22. - DURANGO
UNAMUNZAGA Muretatorre 2C - DURANGO	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	09:00-22:00
BALENCIAGA EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
URIZAR GABIOLA 2 - BERRIZ SARRIA Sasikoa 17, DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
DE DIEGO Intxaurrondo 22. - DURANGO	EGUENA, 11 - 09:00-09:00
09:00-14:00	ETXEBARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA
09:00-22:00	09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
DOMEKA, 7 - 09:00-09:00	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO	
RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA	



Zorionak, **Unax!** Urte bat bete duzu. Ama, aita eta familia guztiaren partez musu handi bat. Asko maite zaitugu!



Gure etxeko txikiak, **Urkok**, urtea bete dau. Zorionak, maitia, bereziki Martin anaiaren partetik. Erraldoi mosuak denon partetik!



Zorionak zuen hirugarren urtebetetzien, **Elene** eta **Bittor!** Mosu handi bat danon partez. Asko gure zaituztegu!

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 11° / 5° ☁️	ASTELEHENA 🌧️ 10° / 4° ☁️	EGUAZTENA 🌧️ 17° / 9° ☁️
DOMEKA 🌧️ 9° / 5° ☁️	MARTITZENA 🌧️ 11° / 5° ☁️	EGUENA 🌧️ 16° / 9° ☁️

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda

#salduenak

GAUZAK DIRENA BALIRA
Joseba Sarrionandia (Pamiela)

DENDAOSTEKOAK
Uxue Alberdi (Susana)

POESIA, ZAURIEN UKENDU
Ainhoa Urien (Pamiela)

SASIOLA
Mila Salterain (Alberdania)

Etxeko landareak
Jakoba Errekondo (Argia)

“Galdakaoko ZIUko lankideak nire postreen dastatzaile ofizialak dira”

Sara Estebez zornotzarrak cookie-ak, brownie-ak eta beste hainbat gozo egiten ditu. Basque Culinary Centerren murgildu zen gozogintzan. Geroago eta enkargu gehiago ditu



Sara Estebez
Eguskiza
'Kanela hautsetan'
Zornotza | 1993

ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI

Sara Estebezek lau urte egingo ditu ZIUko erizain lanean. Sasoi gogorra bizi duten arren, oso gustuko du bere lana. Hala ere, gozogintzagaz lotuta ikusten du bere etorkizuna. Kanela hautsetan izenpean dabil gozogintzan. Aurrera begira, sagar-tarta, hostopila eta gazta-tarta ere eskaini gura ditu. Egoerak mugatuta hasi da enkarguak hartzen, instagram bidez (@kanelahautsetan).

Nondik datorkizu gozogintzarako zaletasuna?

Ordu asko egin dut sukaldean, amamagaz batez ere. Baina Basque Culinary Centerren ikasten nabilela murgildu nintzen gozogintzan, ordura arte ezezaguna nuen munduan. Sei hilabete egin nituen

han, erizaintza ikasketak hasi arte. Dena dela, neure kabuz jarraitu dut: blogak irakurtzen, errezetak ikusi eta probatzen. Urte batzuk dira postreak egiten ditudala. Eta orain dela urtebete *Kanela hautsetan* sortu nuen, ZIUko lankideek animatuta. Nire galleta eta postre asko dastatutakoak dira.

Basque Culinary Centerretik erizaintzara salto egin zenuen. Aldaketa handia da hori. Zerk bultzatuta?

Nik neuk ere ez dakit esaten zergaitik. Ama erizain laguntzailea da eta berak beti animatu nau erizaintza ikastera. Mondragon Unibertsitateetik berbaldi bat ematera etorri ziren Ibaizabal ikastetxera, Basque Culinary Center zabaldu zuten urtean. Sukaldaritzaz gustuko nuen eta asko erakarri ninduen. Probak

egin eta ikasketak hasi nituen. Baina, eskola pribatua izanik, Donostian bizi izanda, nahikoa garestia zen. Ez dakit zergaitik, haizeak jo eta utzi egin nuen.

Zelan uztartzen dira erizaintza eta gozogintza?

Oso ondo! ZIUun nekatuta gaude askotan, arduratuta. Etxera heldu eta gozogintzan hasteak lasaitu egiten nau. Esan behar dut ez naitzela geldirik egotekoa, kirola ere egiten dut.

“**'Kanela hautsetan' sortu nuen, ZIUko lankideek animatuta**”

Zer ematen dizu gozogintzak?

Lasaitasuna, eta nik egindako galletak eta postreak janda jendea disfrutatzen ikusteak bete egiten nau, batez ere Galdakaoko ZIUko lankideak gozatzen ikusteak. Eurak dira nire postreen dastatzaile ofizialak. Pandemiagaz oso urduri gaude, nekatua, eta oso ondo dator gozoren bat edukitzea. Batez ere, gaueko txandan. Nahikoa txanda gogorak dira. Ez dakit zelan, baina beti dago gozoren bat.

Urte gogorra izan duzue osasungintzan.

Hala da, eta orain txarrago gaudela esango nuke. Jendea nekatuta dago, negatibismo handia igartzen da. Edozein txanda da gogorra.

Ikusten duzu zeure burua erizaintza eta gozogintza aukeratzeko egoeran?

Bai. Zornotzan *Bakery* bat zabaldu gura nuke. Amets bat litzateke. Lan egin beharra daukat aurrezteko.

Zein postrek du arrakastarik gehien?

Cookie-ek, dudarik barik.

Kanela ezinbesteko osagaia duzu?

Asko gustatzen zait, baina ez da ezinbestekoa. Euskarazko izen bat gura nuen, eta ezin asmatu ibili ginen, *Kanela hautsetan* sortu zen arte.

Argazkilaritza ere gogoko duzu. Kontzertuetan argazkiak ateratzen ibilitakoa zara. Baduzu baten bat gogoan?

Berri Txarraren azken kontzertua Bermeon, 2019ko urrian. Lehenengo ilaran jarri eta mugitu ere ez nintzen egin. Itzela izan zen. Mundaka Festivalean ere egonda nago, urte bitan. Bikotekidea Mocker's taldekoa izanik, haiekin ere asko ibili naiz. Dena dela, bidaietan atera ditut gehien.

Europar eta Afrikan ibilitakoa zara. Zein izango da hurrengo bidai?

Afrikara bueltatzeko gogoia dut. Iaz Kenyan egon nintzen, umezurztegi batean boluntario, eta umeak berriro ikusteko gogoia itzela dut. 2018an Zanzibarren eta Tanzanian ere egon nintzen, ZIUko erizain boluntario lez. Oso esperientzia ona izan da, urtero errepikatze modukoa. Islandiara ere bueltatu gura dut; 2018an behien etxalde batean egon nintzen boluntario. Norvegian, Grezian, Londresen, Parisen.... ere ibili naiz.

Lauhortza

Markel Onaindia
Txabarri
Kazetaria



Herri goldaketa

Subelandareen antzera eguzki bila atera nintzen etxetik aurreko batean, eta kaleetan sigi-saga ibili ostean Sasikoa parteraino ailegatu nintzen. Han bai eguzki ederra. Ondoko taberna batean kafe bat eskatu eta banku batean jesarri nintzen, eguzki epeletan. Kategorian, aizu. Parean trenak libre utzitako eremu luze-zabala nuen, Sasikoatik Askatasun etorbideraino eta Alluitzetik Ezkurdiraino doana. Imajinazioa piztu eta irudikatzen hasi nintzen umeak belartzan jolasean eta korrika, gazte kuadrillak arbolapetan berbetan, nagusiak loreek markatutako bideetan pasioan. Zer ondo etorriko zen horrelako leku bat pandemia garaioan, ezta?

2012ko abenduaren 17an tren lurperatu zenez geroztik hutsik eta zarratuta dago lur hori, 500 etxetik gorako proiektu faraoniko batentzat destinatuta ei zegoena. Itzala sortzeko etxedorreak. Gogoan dut Eusko Jaurlaritzako arduradun bat 2018an Durangoko Udalera ustezko proiektu definitiboa aurkezten etorri zen eguna; ahoan bilorik barik esan zuten, trena lurperatzeko obraren gastua konpentsatu asmoz eraikiko zirela etxeak. Hau da, proiektuaren oinarrian ez zegoen etxebizitza berriak egiteko beharrian sozial bat, eta Jaurlaritzak parra egiteko asmoa besterik ez zuen. Kostata baina proiektu hori pausatu egin zen, 3.000 biztanleren indarrez eta erabakiz herri-galdeketa bat gartzea onartu zenean.

Martxoaren 14an izango da kontsulta hori, Durangoko geroarentzat inportantzia handikoa dena. Ondo legoke botoa emateko ekintza hori herri-goldaketa bihurtzea, 60.000 metro karratuko lurra lorak eta arbolak hazteko emankorra izan dadin. Eskertuko dute umeek, gazteek eta nagusiek, eta subelandareek ere bai.





ERABAKIA IZAN

HERRI GALDEKETA
Trenbide zaharreko proiektua

MARTXOAK

14




DURANGO
Gasteizko Udala • Ayuntamiento